

UPV/EHU_n IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA (2021) I.ETA II. MODALITATEAK

Ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda

Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordearen (IGBB) oniritzia jaso ondoren, eta Gobernu Kontseiluak onartu ondoren, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratu zuen:

UPV/EHU_n IKERTZAILEAK PRESTATZEKO KONTRATAZIO DEIALDIA 2021

Aurkeztutako eskaera guztiak aztertu ondoren, ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin-behineko zerrenda argitaratu zen errektoreordetzaren webgunean, zerrendan bertan adierazita zeintzuk ziren zuzendu beharreko eskaerak. I. eta II. Modalitateetan onartutako merezimenduen behin-behineko zerrenda ere argitaratu zen. Zerrenda hau eskaerak aurkezteko fasean erregistratutako merezimenduak berrikustetik prestatu zen.

Zuzenketak egiteko epea amaitu ondoren, IAEk ERABAKI DU ebaluaziorako onartutako eta baztertutako eskaeren behin betiko zerrenda errektoreordetzaren webgunean argitaratzea.

Helegiteak:

Erabaki honek administrazio bidea agortzen du eta honako bide hauek daude beraren kontra egiteko (aukerak bateraezinak dira):

1.- Lehenengo eta behin, aukerako berraztertzeko errekurtsua aurkez dakioke erabakia eman duen organoari berari hilabeteko epean, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita.

Administrazio errekurtsu hori jarriz gero, eta errekurtsua jarri eta hilabeteko epean erabaki adierazirik jaso ezean, errekurtsua ezetsizat joa izan dela ulertu beharko da. Horrela gertatuz gero, hurrengo atalean adierazitako auzibidera jotzeko aukera egongo da.

Kasu horretan, administrazioarekiko auzi errekurtsua jartzeko epea sei hilabetekoa izango da, errekurtsua ezetsizat joa izan den egunaren biharamunetik kontatzen hasita (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legeari jarraituz (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, 123. eta 124. artikulua; 29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 46. artikulua).

2.- Zuzenean, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke Bilboko administrazio auzietako epaitegietan. Horretarako, bi hilabeteko epea dago, erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita (29/1998 Legea, uztailaren 13koa, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duena: 8.3 eta 46. artikulua).

Leioan, 2022eko urtarrilaren 25ean

IKERKETAKO DEIALDIEN ATALA
IKERKETAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZA